

UDAL-BATZARRA 04/08

UDAL-BATZARRAK, 2008ko MAIATZAREN 8ean EGINDAKO OHIKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka

ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola
Eider Garmendia Arrieta
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga
Gregorio Zuaznabar Urkola
Fidel Azpiroz Arrillaga
Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko maiatzaren 8an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohikanpoko Bilkura egin asmoz Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran eta Alazne Ruiz Luluaga zinegotziak ez dira etorri eta idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- URTARRILAREN 30EAN, OTSAILAREN 12AN EA MARTXOAREN 6EAN EGINIKOAKTEN ONESPENA.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Jose Ignacio Otermin Zinegotziak zera adierazten du:

“Lehenengo bi aktei buruz ez dugu ezer esateko baino martxoko bilkuran komentatu zen AHTko bozketari buruzko emaitzak. Nik aipatu nuen 450 botu izan zirela eta behintzat eztabaida sortu zen beharrezkoa zen edo ez jartzea batzordeko aktan. Plenoan ere behin baino gehiagotan aipatu nuen zenbaki hori, 450. Beraz, aldaketa hori eskatuko nuke egitea aktan”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Guk eskatuko genuke urtarrilaren 30eko aktan, 3. eta 5. puntuko bozketan, dagoen egoera ikusita, EAE alde politikoaren izenean lorturiko botuak taldearen izena ordez nominalak izatea. Otsailaren 12ko plenoko 2 puntuko boztetan ere gauza bera”.

Aipaturikoa kontutan izanik, partaideek aho batez erabakitzen dute urtarrilaren 30, otsailak 12 eta martxoaren 6ko aktak onestea ondoren aipatzen diren puntuak izan ezik:	Ante lo expuesto, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar las actas celebradas con fecha 30 de enero, 12 de febrero y 6 de marzo excepto en los puntos que a continuación se señalan:
--	---

Urtarrilaren 30eko plenoa/ Pleno de 30 de enero

3. puntua/punto 3 “GUIPÚZCOA ETA DONOSTIA KUTXAREN GOBERNU-ORGANOEN IZENDAPENEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”

ESATEN DEN LEKUAN: “Alkate jaunak, Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta agrupazio berria bozketara eramaten du, ondorengo emaitza lortuz:	DONDE DICE: ”El Sr. Alcalde somete a votación la formación de la nueva agrupación con los municipios de Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta, obteniendo el siguiente resultado:
--	---

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ

ESAN BEHAR DU: “Alkate jaunak, Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta agrupazio berria bozketara eramaten du, ondorengo emaitza lortuz:	DEBE DECIR: ”El Sr. Alcalde somete a votación la formación de la nueva agrupación con los municipios de Anoeta-Villabona-Alegia-Legorreta, obteniendo el siguiente resultado:
--	---

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Eider Garmendia, Gorka Otxoa-Aizpurua, Alazne Ruiz, Gregorio Zuaznabar)
Aurkako botuak/Votos en contra: BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ

5.puntua/punto 5 “EAEK AURKEZTURIKO “TORTURAREN AURKAKO” MOZIOA”.

ESATEN DUEN LEKUAN:”Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa bozketara eramaten du Alkate jaunak ondorengo emaitza lortuz:	DONDE DICE: “Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa” obteniendo el siguiente resultado:
--	--

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI /SEIS (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak “Torturaren kontrako” mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Torturaren kontrako mozioa” obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: SEI /SEIS (EAE talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

ESAN BEHAR DU:”Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa bozketara eramaten du Alkate jaunak ondorengo emaitza lortuz: | DEBE DECIR: “Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Igor Portu Juanenak eta Mattin Sarasolak jasandako Tortura larrien aurrean Espainiar Estatutak euskal herritarren aurka erabiltzen duen Torturarekin amaitzea helburua duen mozioa” obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: SEI /SEIS (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Eider Garmendia, Gorka Otxoa-Aizpurua, Alazne Ruiz, Gregorio Zuaznabar)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak “Torturaren kontrako” mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Torturaren kontrako mozioa” obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
Aurkako botuak/Votos en contra: SEI /SEIS (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Eider Garmendia, Gorka Otxoa-Aizpurua, Alazne Ruiz, Gregorio Zuaznabar)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO.

Otsailaren 12ko plenoa/Pleno de 12 de febrero

2.puntua/punto 2 “SUSPENTSIOARI BURUZKO MOZIOA

ESATEN DUEN LEKUAN: “Aurkezturiko mozioen arabera, Alkate jaunak lehen irakurritako mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | DONDE DICE: “Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción leída en primer lugar obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: BOST/CINCO (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak bigarrenko mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción leída en segundo lugar obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: BOST/CINCO (EAE talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

ESAN BEHAR DU: “Aurkezturiko mozioen arabera, Alkate jaunak lehen irakurritako mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | DEBE DECIR: “Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción leída en primer lugar obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: BOST/CINCO (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Eider Garmendia, Gorka Otxoa-Aizpurua, Gregorio Zuaznabar)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak bigarrenko mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz: | Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción leída en segundo lugar obteniendo el siguiente resultado:

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
Aurkako botuak/Votos en contra: BOST/CINCO (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Eider Garmendia, Gorka Otxoa-Aizpurua, Gregorio Zuaznabar)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Martxoaren 6ko plenoa/ Pleno de 6 de marzo

Galde-Erreguen 3. puntua / punto 3 de Ruegos y Preguntas

AHT buruzko emaitzei buruz , ESATEN | DEN LEKUAN: | En el apartado 2^a, con relación a “AHT buruzko emaitzak”, DONDE DICE:

AHT buruzko emaitzak. Abenduaren 11ean egin zen Ingurumen batzorde batean tratatu zen gaia. Komentatu ziren proportzioetan eta ze boto kopuru lortu zuten bi aukerak, aurkakoak eta aldekoak. Hori aktan ez da azaltzen. Hurrengo bileran galdetu nuen zergaitia eta orain berriro, zergaitik ez dira zenbakiak azaltzen?”.

ESAN BEHAR DU: | DEBE DECIR:

AHT buruzko emaitzak. Abenduaren 11ean egin zen Ingurumen batzorde batean tratatu zen gaia. Komentatu ziren proportzioetan eta ze boto kopuru lortu zuten bi aukerak, aurkakoak, hauek izanik 450 botu eta aldekoak. Hori aktan ez da azaltzen. Hurrengo bileran galdetu nuen zergaitia eta orain berriro, zergaitik ez dira azaltzen aurkako 450 botu izan zirela?”.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 136 ZENBAKITIK 238 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.	El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.
---	--

Fidel Azpiroz zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“202 dekretuari buruz. Hainbat dekretu erabiltzen da Kiroldegiko kudeaketari buruzkoak. Ikusten dugu, batetik, kudeaketa honek bulegoan hainbat lan ematen dituela. Honen harira, galdetu nahi genuke batetik, diru-sarrerak eta irteerak zenbatekoak diren eta beste alde batetik, ikusita 2006ko irailtek aurrera kiroldegia martxan dagoela eta kontutan hartuz, guk aurreko legelaidan urtebeteko epea jartzen genuela datu pilaketa egiteko, jakin nahi genuke gutxi edo gehiago informazio hori ba ote dagoen. Era berean, udalean sortzen duen lan bolumena dela eta zerbait aurrikusita dago? Aurrepausorik eman da kudeaketa hroi bideratzeko edo nola bideratu behar den ikusteko?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Batzordean ere aipatu genuen, 2007ko kontuak gutxi gora behera bukatuta daudela eta horiek hartu genituen oinarri bezala. Gestiorako beste bide posible bat aztertzeke asmoz, datu horiek Tolosaldea Garatzen eman zitzaizkion eta hauekin bilera bat eduki nuen lehengo astelehenean eta datorren astean emango digute zirriborro bat. Guk ere ikusten genuen beste modu batera gestionatzea egokiago izan zitekeela eta errezagoa ere, proposamen hori iristear dago”.

Fidel Azpiroz zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“204 dekretuari buruz. Aipamen laburtxo bat, hemen gure kexa komentatu forma aldetik. Iruditzen zaigu gaiak ez duela behar bezalako trataerarik eduki. Guk aipatu izan dugu behin baino gehiagotan likidazioa nola zegoen eta orain gauetik goizera, email baten bidez konbokatoria jaso genuen hurrengo egunean, ordubatean, egingo zela Ogasun batzordea. Nik ezin izan nuen etorri. Hau horrela, forma aldetik ez zitzaigun trataera egokia iruditu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Egia da, denbora gehiegirik ez zela izan baina data aldatzeko proposamenik ez nuen jaso, presak ziren eta entregatu egin behar zen eta horregatik egin genuen. Dena den, apirilak 8tik maiatzak 8ra hilabete paa da eta nahi izanez gero, argibideak emango zitzaizkizuen”.

Fidel Azpiroz zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Bakarrik formalismoa, nik eskatuko nizuke horrelako zerbait denean, adibidez, telefono dei batekin konpondu liteke.

237 dekretuari buruz, bertan festei buruzko aurrekontua onartzen da. Poza hartzen dugu alde batetik aurrekontuaren zenbatekomarkaturiko hildotik joan delako eta beste aldetik, galdetzeko bidea ematen du, nola duade 2008ko urrekontuak?”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bai, lehengoan ere 2008ko aurrekontuak aipatu zenituzten. Gastuei dagokionez, aurrekontutan guk gehienak aurrikusita ditugu eta sarretan zerbait falta zaigunez, aurki jakinaraziko zaizue. Festetako aurrekontuari buruz, azken egunean egon ginenean kontuak ikusten, jarri genuen diru kopuruaren barruan sartu dira”.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotziak dio:

“Iaz 49.000 euro onartu zen eta gero gutxiago gastasu, 47.000 inguru. Aurten 45.000 onartu dugu. Hori zen gure helburua”.

3.- AMINISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO AUZIARI BURUZKO ADIERAZPENAREN ONESPENA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du: | El Sr. Alcalde procede a dar lectura de la siguiente moción:

“33/01 Amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazi nahi dugu: Dispersioa salatzea ez da delitua. Preso politikoaren kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispersio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura saltzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatzeko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuaren biolentzia eta eskubide urraketa dira delitua.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuaren biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

- Elkartasuna eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztie.
- Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu Espainiako estatuaren eta sistema judicialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gaingartzeko exijentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
- Eskubide zibil eta politikoaren urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagertzea aldarrikatzen dugu”.

Fidel Azpiroz Arrillaga zinegotzi jaunak hitza eskatzen du ondorengo mozio alternatiboa irakurtzeko: | El Concejal Fidel Azpiroz Arrillaga solicita la palabra para leer la siguiente moción alternativa:

“Gestoraren auziperatzeari buruzko mozioa. 33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean, Anoetako EAJko udal taldeak, udalbatzari hurrengo mozioa aurkezten dio, bertan eztabaida eta onar dezan:

MOZIOA.- 1.- Udal honek, norbanako giza eskubide guztien aldeko jarrera irmoa adierazten du. Printzipio humanitarioekin zein gizakien eskubide eta askatasunarekin duen konpromisoa.

2.- Euskal presoak jasaten ari diren dispertsio, urrutze eta inkomunikazioa da eurei eta euren familiei kartzela politikak ezartzen dien zigor gehigarririk handiena.

3.- Guzti hau salatzeak eraman ditu 27 euskal hiritarrak auziperatuak izatera. ETA erakundearen parte izatearen edo laguntza eskaintzearen akusaziopean.

4.- Bere garaian, diseinu eta bultzada politikoaren eskutik “dena ETA da” tesiaren aldeko apustua eginez epaitegietan jantzi judiziala eman nahi izatea salatzen dugu.

5.- Gatazkaren humanizazioaren eta berradiskidetzearen aldeko konpromisoa dugunok, herri honetan giza eskubideen etengabeko urrakea guztiak saltzea exijitzen dugu.

6.- Bizi dugun egoera politiko honetan, auzi hau ere bake eta normalizatorako oztopoa bilatzen ari da. Irekitako kausa penaletan zuzeneko erantzukizun eta eskumena duten Estatuko instituzioei amaiera eman diezaietela jazarpen politiko eta judizialeko prozesu honi eskaten dugu”.

Aurkezturiko mozioak direla eta, alkate jaunak bozketara eramaten du a) “33/01, <i>aministiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean</i> ” buruzko mozioa ondorengo emaitza lortuz:	Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “33/01, <i>aministiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean</i> ” obteniendo el siguiente resultado:
--	--

Aldeko botuak/Votos a favor: BOST /CINCO (Pedro M^a Peñagarikano, Gorka Otxoa-Aizpurua, Eider Garmendia, Gregorio Zuaznabar, Ainitze Etxaniz)

Aurkako botuak/Votos en contra: BAT /UNO (Jose Ignacio Otermin)

Abstentzioak/Abstención: BAT /UNA (Fidel Azpiroz)

Ondoren, Alkate jaunak “Gestoraren auziperatzeari buruzko mozioa” bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz:	Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Gestoraren auziperatzeari buruzko mozioa” obteniendo el siguiente resultado:
---	---

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

Aurkako botuak/Votos en contra: BAT ERE EZ

Abstentzioak/Abstención: BOST/CINCO (Pedro M^a Peñagarikano, Gorka Otxoa-Aizpurua, Eider Garmendia, Gregorio Zuaznabar, Ainitze Etxaniz)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, “33/01, <i>Aministiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean</i> ” mozioa onesten da.	Por lo que a la vista del resultado obtenido en la votación, se aprueba la moción “33/01, <i>aministiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean</i> ”.
--	--

4.- 2006 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Korporakideek, ondoren aipatzen den 2006 ekitaldiko likidazioa onesten duen dekretuaren berri dute: | La Corporación se da por enterada del Decreto que aprueba la liquidación ejercicio 2006, que dice como sigue:

“DEKRETUA

Anoetan, 2008ko apirilaren 11ean

Idazkari-kontuhartzaileak osatu duen Anoetako udaleko 2006ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honetako 2006ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2006-12-31n:		433.438,74
2.- kobratu gaeko saldoak 2006-12-31n:		555.008,82
Aurrekontuko zordunak:	551.363,28	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	3.645,54	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2006-12-31n:		674.308,34
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak	640.460,78	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	33.847,56	
- Aplikatu gabeko odainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):		314.139,22
5.- Saldo kobragaitzak:		8.951,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5)		305.188,22
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		305.188,22

9- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-99.422,10
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza	-432,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik	96.073,07
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik	-0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	-3.781,03
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	86.550,680
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	206.879,50
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	293.430,18

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipaturako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Hurrengo plenoari dekretu honen berri ematea hurrengo bilera.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunak; eta neuk, idazkariak, fede eman.”.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Hilabete honetan ez dugu komentariarik egin 2006 urteko likidazioari buruz; pentsatzen genuelako hau zela momentua galdeetzeko eta beste alde batetik dokumentazioa batipat gaur jaso dugulako”

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Puntu hau sartu ez bagenu, gaur goizerarte ez zenuen eskatuko?”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Onartu eta hurrengo plenoan kontu eman behar da, legeak horrela markatzen du. Komentatzeko bada, Ogasun batzordean komentatu beharko da. Presazko konbokatoria izan zen, egin behar zen, pentsatzen dut logikoa dela hurrengo batzordean komentatzea. Azken finean da gauza teknikoa. Teknikoa denez, ez dakit zurekin komentatu edo Nekanerekin. Ikusi dut, dekretuan kantitate bat “resultas presupuestarios”-etan eta pasa zenuten dokumentazioa ez dator bat. Nekaneri galdetu diot eta komentatu dit kenketa

batena zela. Ingresotan 7. kapituluan agertzen da babes ofizialeko plaka solarretarako 34.000 eurotako dirulaguntza. 2006 urtean ez zen kobratu pentsatu nahi dut 2007an baietz”.

Udaletxeko Idazkari-Kontuhartzaileak erantzuten dio:

“Esaten duzunean dekretuaren zenbatekoa eta emandako dokumentazioan beste kopuru bat dagoela, dokumentazioa borradore bat da eta onartu dena dekretuan azaltzen den kopurua da. Plaka solarretako dirulaguntzari buruz, 2006 urtean EVEk emaniko dirulaguntza 2006 urtean errekonozitu zen eta 2007 urtean emanikoa 2007an”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Diru hori ez da galdu behintzat!”.

Udaletxeko Idazkari-Kontuhartzaileak erantzuten dio:

“Dirulaguntza eman den ekitaldiari egokitu da, 2007an emaniko dirulaguntza bat ezin da 2006ean aplikatu”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Gastutan ez naiz sartuko baina orokorrean, ikusi dut, gastatu dela presupuestatu dena baino dexentez gutxiago. Posible da esatea 2006 urtean “criterio restrictivo de gasto” egon dela?”

Alkate jaunak erantzuten dio:

“2006ko zenbait gorabeherak saiatu zineten badakit, kanpoko laguntzaren bidez ixten eta ezin izan zen. Orain horrela galderarik egitea ez dakit zentzurik baduen, hemen gaudenetatik 7tik 5 ez geundenean”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Esan dizut gauza teknikoa dela , zenbaki batzuk nola atera diren baina baita ere badu bere irakurketa”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Irakurketa hori zuk egin beharko zenuke eta gero gurearekin, bere garaiean, konparatu. Orain, 2006ean “Gasto restrictivo” zen ala ez hemen galdetzea niri absurdo xamar iruditzen zait”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Ez, zuk ezin duzu erantzun noski, kontuhartzaileak bai”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Kontuhartzaileari ere, orain galdetzea, erantzun nahi badu...”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“2007 eta 2008koak egiten direnean ere galdetuko dugu”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Ni ez nago komentarioen aurka baina gu ez geunden, gastatu ez dugun diru bati buruz guri zerbait galdetzea?”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Nori galdetu behar diot? Nere buruari?. Hori da nire inpresioa”.

Fidel Azpiroz zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Niri tokatu zitzaidalako, nolabit komentatu “gasto retringido” hori une oro aurrera eman den kriterio bat da. Batzutan gutxiago lortu da eta bestetan gehixeago”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“Sarrerak “ingresos ordinarios” izan ziren gehiago “gastos ordinarios” baino. Nere zenbakiak ziren “ingreso corriente” bezala 1.600.000 euro eta “Gasto corriente” bezala 1.500.000 euro”.

Udaletxeko Idazkari-Kontuhartzaileak erantzuten dio:

“Horrela egin baduzu, horrela izango da”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“”Corriente” ari naiz esaten. Bestalde, tesorerian ere hasieran zeuden 200 eta ipiko mila eta azkenean 400 ipiko mila eta gero ikusten dut “pendiente de cobro” dagoela kantitate potolo bat baino 2007an kobratu egin dira “de ejercicios anteriores” bezala. Beste zenbaki deigarria “pendiente de cobro”. Oker ez banago ziren Diputaziotik kobratu behar zirenak eta gero ura eta zaborraren bi errezibo”

5.- LOATZO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETEN ONESPENA.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotziak zera adierazten du:

“Gaur ez dugu gai hau ikusiko. Arrazoia izan da mankomunitateko estatutoen aldaketak plenoak onartu aurretik aldiakari ofizialean argitaratua behar zirela eta guk, mankomunitateko bilkuran, ez genekielako edo ez ginelako konturatu hori argitaratu gabe aldatzea pentsatu genuen eta horregatik sartu genuen puntu hau gai-zerrendan. Gero konturatu gara hori ezin dela egin, argitaratu eta 30 eguneko epea aztergai egon behar dute. Gaurko egunez, oraindik ez da publikatu. Aztergai egoteko epea amaitu ondoren, mankomunitatea sortzen duten udal bakoitzak aldaketa hauek onartu beharko dituzte”.

Fidel Azpiroz zinegotziak adierazten du:

“Komentatu, kultura batzordean, gutxi edo gehiago zer aldaketa eman behar diren ikustea ez legoke gaizki”.

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotziak zera adierazten du:

“Oso puntualak ez dira, forma aldeko gauzak gehien bat”.

Adierazitakoa dela medio, Alkate jaunak puntu hau Gai zerrendatik kendu egiten da.	Ante lo expuesto, el Sr. Alcalde retira el punto del Orden del Día.
--	---

6.- ITXURTXULO ETXEAK ETA APARKALEKUAK JASOTZEKO ALKATEA AHALMENTZEA.

Ikusi ondoren sustapen partikularreko 58 babes ofizialeko etxebizitzak, horiei erantsitako garajeak eta trastelekuak, eta salmenta libreko hornikuntzarako lokalak, eta 17 garaje eta 2 trastelekuiei buruzko espedientea.	Visto el expediente para la construcción de 58 viviendas de protección oficial de promoción privada, garajes y trasteros vinculados; locales de equipamiento, 17 garajes y 2 trasteros de venta libre.
--	--

Eskritura Publikoko zirriborroa ikusi ondoren.	Visto el borrador de Escritura Pública.
--	---

Udal Aparejadorearen txostena ikusirik.	Visto el informe del Aparejador Municipal.
---	--

AOTren txostena ikusi ondoren.	Visto el informe del T.A.G.
--------------------------------	-----------------------------

Udaleko Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusirik.	Visto el informe del Secretario-Interventor del Ayuntamiento.
--	---

Alkate jaunak adierazten du:

“Jakingo duzuenez, jabeek eskrituratu dituzte etxeak eta Jaurlaritzaren oniritzia iritsi da nonbait, hitzez emana, idatziz ere aste honetan irixiko zela esan zitzaigun behintzat. Honen inguruan gelditzen da, Bildo 5 koop udalari, lehen hartu zuen konpromezuaren arabera, eman behar dizkio hor dagoen etxe bat eta hainbat gauza. Lehengo asteazkenean esan zitzaidan, guk firmatu ahal izateko lehengo dokumentua segurasko balioko zuela eta joan nedila notaritzara. Han berriz, notariotako batek esan zidan ezetz, berriz beste akordio bat hartu behar zela eta akordio horretan ni ahalmenu etab.. Ikusiko zenuten, AOTk eginiko txosten bat badagoela non adierazten den hartu beharreko akordio horiek nondik norakoak diren. Hor erantsi beharko litzaioke alde batetik aparejadorearen txosten teknikoa. Andresek, inspekzioa egin da udalari eman behar zaizkion ondasunak ikusi ditu eta bere txostenean ikusiko zenuten nola jartzen duen jD eta C lokalak eta hauen sotoko eranskinak hezetan puntu bat badute eta etxeak pitzadura txiki

bat ere. Konstruktora ari da notak hartzen eta hau ere bidali zaie esanez konpondu egin behar dituztela. Bestetik, komenigarria dela uste dut eman behar zaizkigun ondasunak zehaztea, zein bloke, m2, zein zenbaki etab dituzte. Baita ere azaldu, enpresak, kooperatibak eta zuzendaritzak egin dute aste honetan bilera bat eta bertan obra likidazioa itxi dute. Oker ez banaiz, datorren astelehenean giltzak jasoko dituzte.

EAJ/PNVko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin Garmendia jaunak zera adierazten du:

“Alde batetik zoriondu behar dugu, azkenean bakoitza sartzen da bere etxean. AOTren txostena ikusita, beldur pixka bat sartzen zait; alde batetik esaten du, firmatu ondoren ezingo dute elkarri ezer erreklamatu, horrek beldurra ematen dit eta esango dizut zergaitik. Aparejadorearen txosten teknikoan esaten du bi lokaletan hezetasuna dagoela eta etxebizitzan pitzadurak. Jarraian aipatzen du 10 urteko bermea badagoela. Beraz, AOTk eta aparejadorearen txostenak ez datozela bat ulertzen dugu. Eskritura publikoko zirriborroa dagoen bezala sinatzen bada, gero ez dugu izango erreklamatzeko aukerarik, hori da AOTn txostenak dioena. Nik uste dut denak konforme egon behar dugula eskritura publikoa nola egin, modu batean edo bestean ziurtatu behar dugu zerbait gertatuz gero konpondu egin behar dutela eta ezin da firmatu reklamazioak ez direla izango. Bestetik, AOTren txostenean azaltzen dira ze gauza aurkeztu behar dituzten sinatu aurretik, zuk ere komentatu dituzu zure azalpenean eta horrekin konforme gaude. Hor bakarrik erantsi AOTen txostenean azaltzen dena “debiendo entregarse los locales acabados exteriormente y raseados y pintados interiormente, con todas las acometidas realizadas”. Bestalde, eman zaigun zirriborroan ikusten da modelo bat hartu dutela eta egin dutela “copiar y pegar”. Azken aurreko orrialdean, esaten du “El transmitente en este acto no hace entrega de las llaves de la vivienda y se obliga a entregar las mismas en el plazo máximo de tres meses contados desde la concesión de la calificación definitiva, salvo que dicho plazo sea prorrogado por la Delegación Territorial de Guipúzcoa”; horrela ikusita esan nahi du naiz eta eskritura firmatu oraindik Kooperatibak 3 hilabete dituela guri garajeak eta etxebizitza emateko. Nik pentsatze dut hau aldatu egin behar dela eta giltzak eskritura sinatzerakoan eskuratu egin behar ditugula.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Kasu honetan, segurasko firmatutakoan eskuratuko ditugu, astelehenean banatu behar bait dituzte”.

EAJ/PNVko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin Garmendia jaunak zera adierazten du:

“Eskritura zirriborroaren beste apartadu batean aldatu beharko litzatekena hau da: “La parte adjudicataria de la vivienda y los componentes de su unidad convivencial se comprometen a dedicarla a su domicilio habitual y permanente” eta hori ez da egia, horrelako baldintza guk ez dugu”. Bestalde komentatu nahi dut etxebizitzaren obra hau ikaragarri luzatu dela. Bere garaian epea bat jarri zen, kooperatiba berak jarri zuen, 26 hilabete, horiek pasa dira eta beste 5 edo 6 gehiago ere. Alde batetik udalari horrek suposatzen dio atzerapen bat, lehen komentatu genuen zer egin behar zen garajeekin, saldu; honek suposatzen dio udalari atzerapen bat dirutan eta bestalde herritarrei molestia bat. Atzerapen hau ez zait iruditzen gainetik pasa beharrekoa dela. Kalkulo txiki bat egin dut, ez da diru asko, uste dut 3 miloi, isuna aplikatzen bada. Gai hau lantzeko gauza bat dela pentsatzen dut eta ikusi merezi duen isuna jartzea edo ez.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Kooperatibak aplikatu dio isuna. Ez dakit kantitatea baina azken bileran Sobrino enpresak onartu du eta horren arabera likidazioak egin dira. Zehatz mehatz esango dizuet kooperatibako arduradunekin egongo bait nahiz datorren astean. Guk udal bezala horko arduradunei, nik pertsonalki askotan esan diet gauzak asko ari zirela atzeratzen eta horregatik orain dela hilabete batzuk kalearen parte bat ireki zuten jendea mugitu ahal izateko. Orain, pentsatzen dut behin giltzak jaso ondoren horko gauzak kentzen joango dira. Beste zerbait ere badago, gure hor bi hartze egin behar ditugu, bat jabetzarena eta bestea urbanizazioarena. Azken honen txostena ere aparejadorea prestatzen ari da eta hor akatsak baleude, pentsatzen dut konponduko direla”.

EAJ/PNVko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin Garmendia jaunak zera adierazten du:

“Bai, hori tramite normala da. Nere kezka zen gure isuna jarri eta kopropietarioek ez, baina esaten badidazu beraiek jarri dietela, beldur gutxiago edo kezka gutxiago ematen dit aplikatzea. Pentsatzen dut isuna jarri edo ez landu egin behar dela eskritura sinatu baino lehen. Behin firmatu ondoren ezin bada ezer erreklamatu, hau ere ezin da eskatu”.

Alkate jaunak erantzuten du:

“Hor ere badago eguzki plakan inguruan tikis-mikisen bat”.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- Bildo 5, S.Coop-en aldetik, ondoren aipatzen diren ondasunak jasotzea, betiere, lokalak kanpotik bukatuta eta barrutik berdinduta eta margotuta, eta hartune guztiak eginik beharko dute:

- A blokean, 21 zk. duen eta 10,95 m² azalera erabilgarria duen sotoko solairuan trastelekua.
- A blokean, 22 zk. duen eta 10,95 m² azalera erabilgarria duen sotoko solairuan trastelekua.
- C blokean, 4. solairuan edo teilatu azpian dagoen C letrako 70,52 m² azalera erabilgarria duen etxebizitza. Etxebizitza horrek lotuta ditu sotoan, 30 m² azalera erabilgarriko 1 zbk. duen garajea eta 4,5 m² azalera erabilgarriko 8 zbk. duen trastelekua.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Recibir de Bildo 5, S. Coop los bienes que a continuación se señalan, haciendo constar expresamente que los locales deberán entregarse acabados exteriormente, raseados y pintados interiormente con todas las acometidas realizadas:

- Trastero en planta de sótano señalado con el nº 21 del bloque A de una superficie útil de 10,95 m².
- Trastero en planta sótano señalado con el nº 22 del bloque A de una superficie útil de 10,95 m².
- Vivienda en planta cuarta o bajo cubierta señalada con la letra C del bloque C de una superficie útil de 70,52 m². Tiene como anejos un garaje en planta de sótano señalado con el nº 1 con una superficie útil de 30 m² y un trastero en planta sótano señalado con el nº 8 con una

- C blokean, beheko solairuan C letra duen 76,27 m²-ko lokal bat. Lokal horrek, sotoko solairuan dagoen 52,70 m²-ko lokala erantsita du.
- C blokean, beheko solairuan D letra duen 76,71 m²-ko azalera erabilgarri duen lokala.
- 17 garaje ondorengo zenbaki eta azalarekin: **19** (23,01 m²), **20** (23,27 m²), **21** (23,40 m²), **22** (22,76 m²), **23** (22,77 m²), **24** (23,03 m²), **25** (23,40 m²), **26** (22,76 m²), **27** (22,77 m²), **28** (23,03 m²), **29** (24,46 m²), **30** (24,36 m²), **33** (27,99 m²), **34** (28,38 m²), **35** (42,81 m²), **36** (42,70 m²) eta **37** (42,70 m²).

Bigarren.- Dagokion Eskritura Publikoa sinatu aurretik, udal-aparejadoreak bere txostenean adierazten dituen honako obra-akatsak konpontzeko eskatzea Bildo 5, S.Coop-ri:

- C blokeko D eta C lokalak eta hauen eranskinetan hezetan puntuak kanpoko hormetan eta lurzoruan.
- C blokean, laugarren pisuan edo teilatu azpian dagoen C letrako etxebizitzako paretetan pitzadurak.

Hirugarren.- Eskritura Publikoa sinatu aurretik, Bildo 5, S.Coop-ek udaletxean ondorengo dokumentazioa aurkez dezan eskatzea:

- a) Jabetza Erregistroaren ziurtagiria,

superficie útil de 4,50 m².

- Local en planta baja señalado con la letra C del bloque C con una superficie de 76,27 m² y que tiene como anejo un local en planta sótano con una superficie de 52,79 m².
- Local en planta baja señalado con la letra D del bloque C con una superficie útil de 76,71 m².
- 17 garajes señalados con los nº **19** (superficie de 23,01 m²), **20** (23,27 m²), **21** (23,40 m²), **22** (22,76 m²), **23** (22,77 m²), **24** (23,03 m²), **25** (23,40 m²), **26** (22,76 m²), **27** (22,77 m²), **28** (23,03 m²), **29** (24,46 m²), **30** (24,36 m²), **33** (27,99 m²), **34** (28,38 m²), **35** (42,81 m²) **36** (42,70 m²) y **37** (42,70 m²).

Segundo.- Requerir a Bildo 5, S.Coop para que previamente a la firma de la correspondiente Escritura Pública proceda a reparar las siguientes deficiencias de obra señaladas en el informe del aparejador municipal:

- Punto de humedad que presentan las paredes exteriores así como los suelos de los locales C y D y sus anexos del bloque C.
- Grietas que presentan las paredes de la vivienda sita en la planta cuarta o bajo cubierta señalada con la letra C del bloque C.

Tercero.- Requerir a Bilbo 5, S.Coop para que previamente a la firma de la correspondiente Escritura Pública presente en el Ayuntamiento, la siguiente documentación:

- a) Certificado individualizado del

<p>finka bakoitzeko bat, non agertzen den ez dutela inolako zama eta kargarik.</p> <p>b) Foru Aldundiaren ziurtagiria, non adierazten den finka katastralki banatuta dagoela.</p> <p>c) Ziurtagiria non komunitateko ondasunetan ez dagoen inolako karga edo gasturik.</p>	<p>Registro de la Propiedad sobre cada una de las fincas, y que las mismas, se entregan libre de cargas y gravámenes.</p> <p>b) Certificado de la Hacienda Foral en el que conste que la finca se halla individualizada catastralmente.</p> <p>c) Certificado de que no existe ninguna carga o gasto en los bienes de la comunidad.</p>
<p><u>Laugarren.-</u> Aipaturiko Eskritura sinatu aurretik ohartaraztea, udalari eman beharreko ondasunen atzerapena dela eta, udalak egun natural bakoitzeko 120 €-ko isuna jartzeko aukera aztertuko duela, ondasunak emateko azken eguna 2007ko abenduaren 25ean amaitu zela kontuan izanik, eta hala balegokio, likidazioa egingo litzatekeela.</p>	<p><u>Cuarto.-</u> Advertir, que previamente a la firma de la citada Escritura, el Ayuntamiento estudiará la posibilidad de aplicar la penalización de 120 € por cada día natural de retraso en la entrega de los bienes al Ayuntamiento; teniendo en cuenta que el plazo finalizó el 25 de diciembre de 2007; y en su caso, proceder a liquidar.</p>
<p><u>Bostgarren.-</u> Aurkezturiko Eskritura Publikoaren zirriborroa aldatzea era honetan:</p> <p>-Testu osoan “cedula de calificación provisional” hitzaren ordez “cedula de calificación definitiva” jartzea.</p> <p>- “OTORGA”ren 6. estipulazioa kentzea; honela dio: <i>““El transmitente en este acto no hace.... Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente de Guipúzcoa”</i> eta ondorengo parrafoa sartzea: <i>“El transmitente, en este acto, hace entrega de las llaves de la vivienda, y la parte adjudicataria se compromete a que la vivienda sea ocupada y se destine a servicios sociales, cediéndola en régimen de arrendamiento o precario”.</i></p>	<p><u>Quinto.-</u> Modificar el borrador de la Escritura Pública presentando en cuanto se refiere a los siguientes extremos:</p> <p>- En todo el texto sustituir la palabra “cedula de calificación provisional” por “cedula de calificación definitiva”</p> <p>- Eliminar en la Estipulación 6ª del OTORGA el párrafo que dice: <i>“El transmitente en este acto no hace.... Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente de Guipúzcoa”</i> y añadir el siguiente párrafo: <i>“El transmitente, en este acto, hace entrega de las llaves de la vivienda, y la parte adjudicataria se compromete a que la vivienda sea ocupada y se destine a servicios sociales, cediéndola en régimen de arrendamiento o precario”.</i></p>
<p><u>Seigarren.-</u> Ahalmena ematea Pedro Mª</p>	<p><u>Sexto.-</u> Facultar al Sr. Alcalde-Presidente</p>

Peñagarikano Labaka alkate-lehendakariari, edo bere kasuan legalki ordezkatzeko behar diren dokumentu publiko eta pribatu guztiak sina ditzan.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko bederatziak laurden gutxi direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.

D. Pedro M^a Peñagarikano Labaka, o en su caso a quien legalmente le sustituya, para la firma de cuantos documentos públicos y privados sean necesarios en orden a la formalización del presente acuerdo.

Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veinte horas cuarenta y cinco minutos, lo que yo, la Secretario certifico.